AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1396

39/2012 EBAZPENA, otsailaren 13koa, Bilboko Osasun Eskualdeko zuzendari gerentearena, Bizkaiko Osasun Barrutiko Bilboko Eskualdeko La Merced Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak Inés Yolanda Martín Esteban andreari esleitzeko dena.

Bilboko Osasun Eskualdeko gerentearen urriaren 21eko 255/2011 Ebazpenaren bidez onartu zen La Merced Lehen Mailako Atentzioko unitateburua izendatzeko deialdi publikoa egitea.

Deialdiaren 5. oinarrian ezarritakoari jarraituz, epaimahaiak funtzioak esleitzeko proposamena helarazi dio Eskualdeko zuzendari gerenteari, berorrek ebazpen lotesle baten bidez onar dezan.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuaz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Inés Yolanda Martín Esteban andreari esleitzea Bizkaiko Osasun Barrutiko Bilboko Eskualdeko La Merced Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak.

Bigarrena.– Inés Yolanda Martín Esteban andreak gestio– eta asistentzia-lanak egingo ditu, zuzenean eta hierarkikoki Osasun Eskualdeko gerentearen ardurapean dagoela. Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak betetzen diharduen bitartean, bai eta funtzio horiek amaitzen direnean ere, bere kategorian dagokion plazaren titulartasuna atxikiko du, eta horren oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak edo ordainsariak finkatzea, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal izango da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Funtzio horietan jarduten duen bitartean, Inés Yolanda Martín Esteban andreak erantzukizun bereziko osagarri bat jasoko du. Osagarri hori 3/1987 Errege Lege Dekretuak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuko da, eta bere zenbatekoa eta ezaugarriak uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean zehaztuta daude.

Bosgarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Seigarrena.– Deialdiaren 8. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bilbao, 2012ko otsailaren 13a.

Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.